hezkuntzako laboralak

Errelebo Kontratua

Jakin badakizue STEE-EILASen betiko eskaera izan dela errelebo kontratua indarrean jartzea behin da berriz eskatu dena. Joan den urtean bai mahai parekide ezberdinetan, bai errelebo kontratua lantzeko osatutako mahai tekniko ezberdinetan administrazioak erantzuten zigun, zuzen eta zorrozki, lan-legepeko irakasleek ez genuela inola ere lortuko, nahiz eta sindikatu guztiek etengabe hori aldarrikatu, hots, errelebo kontratua irakasleentzat ere izatea.

Gure harridurarik handiena jaso dugu guri administrazioak ezezkoa ematen zigun bitartean, sindikatu guztiak gauden sektoreko mahaian, CCOO eta UGT sindikatuek gutxiengoan mahai orokorrean Gobernuarekin sinaturiko akordioan, lanlegepeko guztientzat errelebo kontratua jasotzen zen.

Hau hala izanik, STEE-EILASek salatu nahi du Administrazioak gure mahaian izan duen ausardi eza edo botere eza, ulergaitza delako mahai batean Administrazioak ezetza ematea sindikatu guztiei eta, ostean, beste batean Gobernuak baiezkoa ematea bi sindikatuei.

Dena den, gure mahai parekidean tratatu bitartean ez dagoela gauzatzerik ere adierazi behar dugu. Kontuan harturik azken mahai parekidean ez dela gai hau tratatu eta hauteskundeak daudela, itxura oso ona ez dauka, berehalakoan, behintzat★

Formakuntza Fondoa

Eskabideak aurkezteko epea 2005eko otsailaren 15ean hasi zen eta martxoaren 15ean bukatuko da.

Aurreko hilabetearen aldizkarian esaten genituen aurkeztu behar diren agiriak. Dena den, zalantza edo galderaren bat badituzue, badakizue non gauden★

Soldataren Igoera

Pasa den abenduan, mahai orokorrean erabaki zen urte honetarako igoera salariala. Hau %2,7koa da. Hori da nominan zuzenean aplikatuko dutena★

OHARRA

Hilabete honetatik aurrera, Hezkuntzako Laboralen atalean, egoitzetan gehien jasotzen diren galderak argitaratuko ditugu. Gure asmoa da guztiontzat baliagarriak diren gaiak tratatzea, eta ez errepikatzea hainbeste betikoak.

Informazio puntuala, hau da, epeak irekitzen direnean (IRALE, prestakuntza fondoa, berbaremazioa…) eta bilerak egiten direnean mantenduko da.

hezkuntzako laboralak interesatzen zaizu...

Laktantziarako lizentzia

Bularra emateko lizentzia bi modutan har daiteke:

1.- Umeak hamar hilabete bete arte, murritz dezake lanaldia ordubetez.

2.- Ordu horiek gehitu daitezke, "laktantzia akumulatua" deritzona. Kasu honetan lizentziaren iraupena ez da mugatua eta egoera bakoitzean kontuak atera behar dira jakiteko zenbat egun dagozkion bakoitzari. Hau da, formula oso sinplea da: **amatasun lizentzia bukatzen denetik umeak hamar hilabete bete arte lan egingo diren egunak zenbatzen dira**. Norbera dagoen ikastetxean zenbat egunetan joan beharko zuen lanera, asteburuak, jai egunak, zubiak, oporrak kenduz. **Ematen duen egun kopurua zati sei** egiten da eta emaitza izango da lizentziaren iraupena. Adibidez: demagun egunak zenbatu ostean ateratzen zaizkizula 102 egun (hau da, 102 egunetan joan beharko zela lanera), egiten dugu zatiketa 102/6 eta 17 ematen du. Kasu honetan lizentziaren iraupena 17 lanegunekoa da. 17 egun hauek amatasun lizentzia bukatzen den hurrengo egunean konputatzen hasten dira eta lanegunak direnez, ez dira kontutan hartzen asteburuak eta jai egunak.

"Laktantzia akumulatua" eskatu ostean ezin da eskatu norberaren eginkizunetarako baimena umeak hamar hilabete bete arte. Esan dugun bezala, laktantzia akumulatuaren iraupena jakiteko zenbatu behar dira umeak hamar hilabete bete arte lan egingo diren egunak, baina ez badira lan egingo norberaren eginkizunetarako baimena hartuko baita, ezin izango da ezer zenbatu.

Hainbat pertsonek ez dakite hori, eta laktantzia bukatu ostean, umea zaintzen jarraitzeko eskatzen dute norberaren eginkizunetarako baimena eta uko egiten dietenean horretaz jabetu dira. Azkenean, beste erremediorik gabe, lanera itzuli behar dute.

Beraz, badakizue bata hartzen bada, bestea ezin da hartu★

Kontratua Apurtzearen Ondorioak

Ordezkapen bat egiten ari bazara eta beste lan batera joatea erabakitzen baduzu, indarrean dagoen kontratu honi uko eginez, zerrenda guztietatik jausten zara.

Aldiz beste lan batean ari bazara, ez zaituzte kenduko zerrendetatik, justifikatzen baduzu. Dena den zerrendetatik bota izanak ez du esan nahi hurrengoan, zerrendak irekitzen direnean, ezin zarenik apuntatu★

Etxebizitza aldatzeko zenbat egun?

Hitzarmenaren 26. artikuluaren arabera, 2 lanegun hartzeko eskubidea dago. Hori errolda-ziurtagiriaz egiaztatu beharko da. Baina, **kontuz!!** Lan egiten den lurraldearen arabera, erroldaz aldatzeko eguna 2 egun horien barruan egon behar da, edo ez.

Hau da, Araban ezin da lizentzia hau eskatu baldin eta aurretik aldatu bada errolda. Errolda aldatu behar da lizentziaren 2 lanegun horietariko batean, ez aurretik ez geroztik. Bizkaian, berriz, 15 eguneko epea uzten dute. Errolda aldatu eta hamabost egun pasa baino lehen har ditzakezu lizentziako 2 egunak.

Lanegunak direnez, asteburuak ez dira kontatzen.

Dena den, lizentzia hau hartzeko asmoa baduzu, aurretik informa zaitez zure Lurraldeko Ordezkaritzan★